

JERUSALEM

Jerusalen. Uri baten izena. Millak urteak dituan alde zarra eta oraintsukoa dan alde barria dituan uria. Zenbat berba-bide emoten dauan aspaldiko urteetan! Eta zenbat guda-bide gizaldien joanean. Izenaz bakea adierazten dauan uria, Jaungoikoaren seme-alabak bake-giroan batzeko sortua izan dan uria, guda-uri biurtu jaku.

Dabid

Dabid erregea izan zan uri onen sortzaille. Eta sortzailleak, uriburua leiñu baten lurretan izan ez daiten, bakea egitearren, basamortuan sortu eban uria.

Asieratik etorren ba, bakearen billa uri santu au.

Jauretxea

Uri onetan eta otoitz-etxe izan zedin, Dabid'ek jauretxe edo Jauna gurtzeko etxe eder bat egin nai izan eban, baiña Salomon bere semeak bete eban gurari ori.

Eleiz ederra egin eban Salomon'ek, bere aitagiñerraba zan Fenizia'ko Hiran'ek emon eutsozan zedro aundietatik egin eban zura gai zala.

Gero, Israel erbesteratu ebenean, jauretxea be erre egin eban, baiña barriro egin eban, erria bere lurraldera biurtu zanean, jauretxea, Esdras eta Zorobabel orretarako arduradun zirala. Gero Herodes Erregeak osotu eta ederdu eban.

Jesus il eta berrogei bat urte geroago, erromatarak austu eban jauretxe au eta arrezkero ez da geiago bir-eraikia izan. Zori txarrez, jauretxea egoan lekuan Arabiarren Mezkita ederra, Aksa, dago.

Antxiñako jauretxearenik ezer ez da geratzen, Erosten edo Negarren Ormea baiño. Antxe egiten dabe negar egunero israeldarrak, euren jauretxea eta erria dagozan lez dagozalako.

Arabiarrek

Israeldarrak, edo, obeto esateko, Juda'tarrak munduan sakabanatuak izan ziranean, arabiarrek artu eban Lurralde Santu ori.

An eraiki ebezan euren otoitz-etxe edo Mezkita ederrak. Antxe dago, Isaak erailteko eroan eban Moria mendiaren gaiñean, arabiarrek Meka'tik urriñen dauken mezkita. Andixek igon ei eban zerura Maoma'k.

Garrantzi aundia dauka ba, arabiarrentzat, edo obeto esateko, musulmanentzat, euren toki santua, garrantziz Meka'ren urregoa danak.

Erdi-Aroa

Kristiñauak ezin ikusi izan eban begi onez erdia-roan euren leku santuak jentillen menpean egotea. Gaiñera ara erromes joaten ziran kristiñauak be ez ziran izaten ondo artuak.

Orregaitik, San Bernardo aurrelari zala, Kurutze-Gudak gertatu ziran Lur Santua barriro eskuratze-ko. Eta lortu be bai. Jerusalem Kristiñauen menpean geratu zan, urte batzutarako beintzat. Gero, Aginterri aundiak sortu ziranean, olakoen menpera jausi zan.

Palestindarrak zer diran? Judatarrazkaz eta arabiarrazkaz enda beratakoak eta lurralde aretan lenengo jabetza izan ebenak, antxiñako Filisteoen ondorengoak. Oneik lurra euren ei dabe, lenagoko jabeak diralako, Israel'darrak, oster, Jaungoikoak eurai eskiñi eta emondako lurra dalako.

Gaurko giroa

Jerusalen, bakearen uria, gaur guda-giro bizian bizi da, erlejiño-girokoa eta politika-girokoa dan giro larrian. Iru erlejiño nagusiak nai dabe Jerusalem uriburu lez: Kristiñauak, musulmanak eta Juda'tarrak. Eta guztiak Jaungoikoaren izenean, baiña bakerik egin eziñik.